

Euskal AEko Merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentak % 9,4 igo dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan


Orain arte, urte arteko hazkunde metatua % 7,8koa izan da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Merkatuko beste zerbitzuen sektoreko salmentak % 9,4 hazi dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan, 2020ko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak behin kenduta. Sektore horretan sartzen dira *Ostalaritza, Garraioa eta biltegiaritzea, Informazioa eta komunikazioak* eta *Enpresentzako zerbitzu-jarduerak* sektoreek eskaintako zerbitzuak. 2021eko lehenengo hiru hiruhilekoetan, urtetik urterako hazkunde metatua % 7,8koa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta urtaro-ondorioak atera ondoren, salmentak % 3,8 igo dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkatuko zerbitzuen sektorearen barruan, salmenta errealean urte arteko hazkundea (prezio konstanteetan) orokorra izan da, *Informazioa eta komunikazioak* delakoan izan ezik, non % 0,8ko jaitsiera izan baita. Hazi diren sektoreei dagokienez, *Garraioa eta biltegiaritzea* (% 16,3) eta *Administrazio-jarduerak* eta *zerbitzu lagungarriak* (% 12,7) nabarmentzen dira. Atzetik datoz, hazkunde-maila txikiagoarekin, *Ostalaritza* (% 8,9) eta *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* (% 3,6).

2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak igo egin dira sektore hauetan: *Garraioa eta biltegiatzea* (% 5,1), *Ostalaritza* (% 2,9) eta *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* (% 2,0). *Informazioa eta komunikazioak* eta *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektoreak, ordea, % 1,2 eta % 0,6 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. III/2021

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	9,4	3,8	7,8
Garraioa eta biltegiatzea	16,3	5,1	15,7
Ostalaritza	8,9	2,9	6,6
Informazioa eta komunikazioak	-0,8	-1,2	0,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	3,6	-0,6	3,8
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	12,7	2,0	4,1
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	7,7	5,3	10,2
Bizkaia	10,9	4,4	7,0
Gipuzkoa	7,4	2,0	8,5
ENPLEGUA	-0,3	-0,7	-0,8

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurraldeka, urte arteko hazkundea orokorra da. Bizkaian salmenta-indizea % 10,9 handiagoa izan da 2020ko hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino; Araban, % 7,7 handiagoa; eta, azkenik, Gipuzkoan, urte arteko igoera % 7,4koa izan da.

2021eko hirugarren hiruhilekora arte metatutako aldakuntzari dagokionez, Araba da nagusi hazkundera, % 10,2ko hazkunde metatuarekin. Gipuzkoan 2021eko azken hiru hiruhilekoetan metatutako urte arteko aldakuntza % 8,5koa izan da, eta Bizkaian % 7,0koa.

Euskal AEko *Merkatuko zerbitzuetan* guztira landunen indizea % 0,3 jaitsi da 2021eko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, jaitsiera % 0,7koa izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series](#)

[Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, 2021eko hirugarren hiruhilekoko indizea % **95,94ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62